

Polizi operazioa Gipuzkoan eta Parisen

Sergio Polo ospitalera eraman behar izan zuten atxiloketaren ostean

Pare bat ordu eritetxean egin ondoren, Donostiako komisariara eraman zuten

Erredakzioa / Donostia

Sergio Polo eta Kepa Etxeberriaren atxiloketa astearte gauean 22:00ak aldera gertatu zen Donostiako Anoeta Estadioaren inguruan. Poliziak zenbait tiro egin zituen atxilotzeko unean, Juan Cotino Poliziako zuzendariak esan zuenez. Cotinoren arabera, Polok erresistentzia jarri zuen atxilotzeko unean eta ondorioz jaso zituen kolpeengatik eraman zuten ospitalera.

JUAN COTINO Espainiako Poliziako zuzendariak Donostiara etorrita eman zituen atxiloketei buruzko azalpenak. Azaldu zuenez, Espainiako Poliziak Donostian eginitako operazioa aurreratzearabaki zuten asteartean Parisen eginitako atxiloketen ostean. Cotinok esan zuenez, Parisko operazioaren ostean Sergio Polok eta Kepa Etxeberriak ihes egingo zuten susmoa zuen Poliziak.

Poliziaren arabera, ustezko bi liberatuek Donostiako Urbietako kaleko 3.ean zuten etxe bat. Astearte gaueko 22:00ak aldera, Amara auzoan ikusi zituzten Polo eta Etxeberria, motxila banarekin, eta ihes egiteko asmoa zutela pentsatu zuten. Horregatik atxilotu omen zituen Poliziak bi gazteak.



EDURNE KOCH

Polo eta Etxeberriaren atxiloketa gertatu zen tokia. Bertan Polizia balazorroak bilatzen aritu zen atzo.

Cotinok azaldu zuenez, Polok kontra egin zien eta orduan poliziek zenbait tiro egin zituzten beldurtzeko. Ondorioz atxiloketa indarrez egin zela azaldu zuen Cotinok, eta izandako urradura eta kolpeak sendatzeko eraman zutela Donostiako Arantzazuko Amaren ospitalera.

Ospitaleko langileek EGUNKARIARI azaldu ziotenez, Polo zalaparta handiz eraman zuten ospitalera. Burua begiratu zioten, zauri bat baitzuen, eta bi puntu eman zizkioten. Gorputzean kolpe ugari zitue-

la adierazi zuen, batez ere eskuin aldean. Eskuan fedula bat jarri zioten haustura bat izan zezakeela-eta. Atxilotua nahiko lasai zegeola azaldu zuten eta isilik egon zela. Arropak, berriz, oso zikinduta zituen. Medikuek alta eman zion, baina okertuz gero berriz eramateko esan zuen. Poliziak ospitalean izan ziren bitartean bi aldiz deitu omen zion epaileari.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek, berriz, azaldu zuen Poliziak izen faltsua eman zuela atxilotua ospita-

leko larrialdi zerbitzuetara eraman zutenean.

Polok eta Etxeberriak atxilotzeko unean zeramatzaten motxiletan arropa, garbitzeko zenbait gauza, diru espainiarra eta frantziarra, Poliziaren ikurra duten plakak, dokumentazio faltsua eta Browning F markako pistola bana zeuden, Poliziaren arabera. Cotinok atxiloketaren azalpena ematean esan zuen Polok atxilotzeko unean pistola ateratu zuela. Gero, ordea, motxila bakoitzean pistola bat agertu zela azaldu zuen.

Atxilotuen askatasuna eskatzeko mobilizazioak

Erredakzioa / Donostia

ATZO iluntzean mobilizazio ugari egin ziren asteartean eta atzo Parisen eta Gipuzkoan atxilotutakoen askatasuna eskatzeko. Besteak beste Tolosan, Bergaran, Oreretan, Donostiako Loiola eta Bidebietan, Itsasondan eta Hernanin egin ziren mobilizazioak.

Oreretan, 1.000 lagunetik gora bildu ziren atxiloketenegatik protesta egiteko. Asanblada eta manifestazioa egin zuten, *Espainiak eta Frantziak ez dute bakerik nahi. Atxilotuak askatu* lelopean. Donostiako Loiola

auzoan ere manifestazioa egin zuten. Ehun lagun inguru bildu ziren bertan.

Sopelan ere asanblada eta manifestazioa egin zituzten, eta 300 bat lagun elkartu ziren. Manifestazioan zehar errepidea blokeatu zuten, baina ez zen istilurik izan. Manifestazio deialdiak izango dira gaur ere.

Horretaz gain, beste zenbait protestaldi eta ekimen izan dira. Donostian, esaterako, HBk bozeramaileen batzordea premiaz biltzeko eskatu du.

Bestetik, Azpeitian atzo arratsaldean zabor edu-



GARI GARAIALDE

Atzo iluntzean Donostian egin zen manifestazioaren irudi bat.

kiontziekin errepidea itxi eta su eman zieten. Oreretan ere bi aldiz itxi zuten errepide nagusia arratsaldean: bate-

an autobus bat gurutzatu zuten eta bigarrenean pertsona talde bat kateatu zen errepidea itxiz.

atxilotuak

Atxilotuak, banan bana

Lehendabiziko atxiloketak, Polo eta Etxeberriarenak, astearte gauean izan ziren, eta gainontzekoak atzo goizaldean.

Sergio Polo • 27 urteko sopolarra (Bizkaia). Poliziak 1993tik lotzen du ETArekin. Entzutegi Nazionalen lau kausa ditu irekita, besteak beste bi hilketak, erakunde armatuko kide izatea eta armak izateaz akusatuta.

Kepa Etxeberria • Donostiako Bidebieta auzokoa da, 1975ean jaioa. Poliziaren arabera, 1997an egin zuen ihes Oreretan (Gipuzkoa) Juan Jose Baeza espetxe funtzionarioaren kontrako atentatuaren ostean.

Kandido Sagarzazu • 23 urte. Donostiara da baina Itsasondan bizi da eta han atxilotu zuten. 1996an, kale istiluetan parte hartzeaz akusatuta, hilabete batzuk egin zituen espetxean. Zenbait agentziak 49 ekintza leporatu arren, kasu hartako sumarioan bi soilik leporatzen dizkiote.

Leire Pikabea • Goizaldean aldean atxilotu zuten etxean, Oreretan. 23 urte ditu eta ikaslea da. Etxea miatu ostean, zenbait gauza eraman zituzten, esaterako ordenadorea.

Egoitz Gurrutxaga • 24 urte ditu eta oreretarra da. Etxean atxilotu zuten. Arte Ederrak ikasi zituen Gurrutxagak. Horretaz gain txistularia da.

Gorka Lazkano • Oreretakoa, etxean atxilotu zuten. Lazkanok 24 urte ditu, Udal Euskaltegian egiten du lan, eta herriko musika talde bateko partidea da.

Luis Rufo • 31 urteko oreretarra, etxean atxilotu zuen Espainiako Poliziak goizaldean. Aspacen egiten du lan.

Garikoitz Pascual • 21 urte ditu eta Donostiako Loiola auzoan bizi da. Goizaldeko 01:00 aldera atxilotu zuten Antigan bere neska-lagunaren etxetik irten zenean.

Gotzon Aranburu • Hernaniko Ereñozu auzoan atxilotu zuten, Ereñozuko etxe okupatuan. 23 urtekoa, izatez azpeitiarra da, baina azken urteotan Hernanin bizi da.